



BAINUETARAKO ERREGE ALDAGELA
C MAILA

KONTXA PASEALEKUA 18



Egilea eta data: Ramon Cortazar, 1910

Deskribapena.

Bainuetarako Errege Aldagelaren proiektua Ramon Cortazarrek egin zuen 1910ean eta 1912an eraiki zuten antzinako Errege Aldagela ordezkatzuz. Hondartzaren gainean eta pasealekutik bereizita egindako egurrezko eraikuntza zen. Gaur egun 1912ko eraikinaren jatorrizko itxura gordetzen da. Baranda berari jarraipena ematen dioten bi terrazen bitartez pasealekuan integratua dago. Bertan dagoen desnibela zuzentzeko, azpiko oin bat eraiki zen zokalo baten gainean. Zokalo horretan hondartzara jaisteko bi eskailera kurbatu daude.

Babes erregimena.

- 1.- Babesteko erregimen orokorra.
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
 - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak: bat ere ez.
 - B.- Fatxadako elementu iraunkorrak: fatxada osoa eta pabiloiko estalkia.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ezin da handitu edo aldatu.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.